

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

1. OHARRA INFORMAZIO OROKORRA ETA ENPRESAREN JARDUERA

2012ko irailaren 11ra arte ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI" sozietatean Arabako Foru Aldundia eta Arabako Lurralde Historikoko honako udal hauek izan dira partaide: Dulantzi, Artziniega, Kanpezu, Agurain, Guardia, Bastida, Aramaio, Eltziego, Legutio, Oion, Urizaharra, Berantevilla, Lagran, Samaniego, Bernedo, Harana, Arraia-Maeztu eta Añana.

2012an Arabako Foru Aldundiak partaidetza zeukan hainbat sozietate publikoren berrantolaketari ekin zion, egitura horiek optimizatzeko, haiek soilduz eta, aldi berean, eskala ekonomiak lortuz. Xede horrekin, Arabako Foru Aldundiak zeuzkan Arabarri SAREN akzioak (% 55,90) eskuratu zituen Arabako Lanak, SAUK, eta bere egin zituen haren jarduera eta pertsona, sozietate hori likidatu aurreko urrats gisa. Gaur egun Arabarri SAREN jarduera bakarra aurreko ekitaldietako espedienteak ixtea da.

Sozietatearen izenak (ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI") aurrekoa ordeztu du, horrela erabaki baitzuen Batzar Orokorrak 2002ko maiatzaren 8an. Erabaki hori Manuel M^a Rueda Díaz de Rábago notarioak 2002-7-5ean egindako eskritura publikoan jasota dago (protokolo zenbakia: 2659).

Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa Gasteizen eratu zen 1989ko abenduaren 22an eta gaur egun hiri horretan du bere sozietate egoitza: Probintzia plaza, z.g. Haren IFK zenbakia A-01055433 da eta helbide horretan egiten ditu bere jarduerak.

Arabako Merkataritza Erregistroan dago inskribatuta, Anonimoen Sekzioko 393. liburuki orokorrean, 298. liburuko 53. folioko 3.460. orrialdean.

Legez, Kapital sozietateei buruzko Legeak arautzen du; horren testu bateratua uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen.

Sozietatearen xedea Estatutuen I. tituluan dago jasota (Batzar Orokorrak 2002ko maiatzaren 8an ezarritako testua); hona hemen:

Sozietateak helburu hauek dauzka:

- a) Gizarte eta hirigintza azterlanak prestatzea eta horien jarraipena egitea.
- b) Hirigintza plan eta proiektuak formulatzea, kargen eta etekinen banaketa eta indarrean dagoen hirigintza legeriaren arabera dagokion izapidetze eta onarpenerako ekimena barne.
- c) Mota guztietako eraikuntzak egiteko eta birgaitzeko proiektuak idaztea.
- d) Birgaitzeko jarduketa obrak egitea, baita plan orokorretan, arau subsidiarioetan eta birgaitzeko plan berezietan Ondare Eraikiaren Babesari buruz dauden hirigintza arauak gauzatzea dakarren beste edozein obra ere.
- e) Lurzoru programazioa eta prestakuntza sustatzea, plan orokorretan, arau subsidiarioetan eta birgaitzeko plan berezietan Ondare Eraikiaren Babesari buruz dauden hirigintza arauetan ezarritakoa gauzatzeko helburuz.
- f) Onuradun ez denean, desjabetze espedienteak idazterakoan eta kudeatzerakoan lankidetzan aritzea.
- g) Plan orokorrak, arau subsidiarioak eta birgaitzeko plan bereziak gauzatzearen ondorio diren mota guztietako ondasun, obra eta zerbitzuak kudeatu, ustiatu eta mantentzea, baita birgaitze integratuko eremuen, hirigintza katalogoen eta kultura intereseko ondasun kalifikatu eta inbentariatuen barruan sartutakoak ere.
- h) Kultura Ondare Eraikia –zentzurik zabalenean– babesteko helburua duten mota guztietako ekintzak burutzea, babesa hartuta ezagutza, mantentze, leheneratze, zaharberrikuntza, balioztatze eta zabalkunde gisa.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZINETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

i) Sozietateak edo administrazioak bere ahalmenak gauzatzeko behar duen beste edozein agiri tekniko edo juridiko prestatzea.

2018ko ekainaren 29an, sozietatearen akziodunen ohiko batzar orokorrak erabaki zuen sozietatea desegitea, administrazio organoa uztea eta Iñaki Guillerna Saenz jauna eta Iñaki Aldekogarai Labaka jauna likidatzaile solidario izendatzea, 2018ko uztailaren 10ean Luis Pérez de Lazarraga Villanueva notarioaren aurrean 1.001 protokolo zenbakiaz emandako eskritura publikoan jasotzen denez.

2. OHARRA. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Irudi zehatza:

Honekin batera doazen 2018ko ekitaldiko urteko kontuak sozietatearen 2018ko abenduaren 31ra arteko kontabilitate erregistroetatik abiatuta egin dira, eta haietan aplikatu dira Kontabilitate Plan Orokorra onetsi zuen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuan (abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretuaren bidez aldatua) jasotako kontabilitate printzipioak eta balioespen irizpideak, baita kontabilitate gaietan indarrean dauden gainerako lege xedapenak, eta ondarearen, finantza egoeraren eta sozietatearen emaitzen irudi zehatza erakusten dute. Baita ere, ondare garbiak eta eskudiru fluxuek ekitaldi honetan izandako aldaketak agertzen dituzte.

2018ko ekainaren 29ko batzar orokorrean sozietatea desegiteko hartutako erabakiaren ondoren, sozietatearen jardura bere likidazioa egiteko behar diren izapideak egitean datza eta, beraz, ondare elementuen balioespenaren helburua da aktiboa egiteko, zorrak kitatzeko eta, hala badagokio, gertatzen den ondarea banatzeko eragiketen irudi zehatza erakustea.

Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak onetsi beharko ditu honekin batera doazen urteko kontuak, eta aldaketarik gabe onartuko direla irizten dio. Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2018ko ekainaren 29an onartu zituen ohiko batzar orokorrak.

Ez dago arrazoi berezirik irudi zehatza erakuste aldera kontabilitate arloko lege xedapenak ez aplikatzeko.

Sozietatea ez dago legez behartuta 2017ko eta 2018ko ekitaldietako urteko kontuak ikuskatzera, baina ikuskatu egin dira, Arabako Foru Aldundiak eskatuta.

2.2. Aplikatu diren kontabilitate printzipioak:

Urteko kontu hauek egitean memoriako 4. oharrean laburtzen diren kontabilitate printzipioak eta irizpideak aplikatu dira. Ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egiteko.

2.3. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena:

Sozietatearen likidazio egoera eta aktiboak berreskuratzeko, eta kontuan hartuta epea likidatzen ari den sozietatearen kasuan murriztu egiten dela, aktiboak narriatu egin dira eta ez da espero haien zenbatekoa berreskuratzea.

Zehazki, erabilerako balioaren irizpideak ez dauka garrantzirik eta balio garbi bihurgarriaren eta balio eguneratuaren irizpideak, kontzeptu horiek Kontabilitatearen Esparru Kontzeptualean definitzen diren bezala, enpresa dagoen likidazio egoera kontuan hartuz aplikatu beharko dira.

1. oharrean eta ohar honen aurreko puntuetan adierazi denez, likidatzaileen ustez funtzionatzen ari den enpresaren printzipioa ez da aplikagarria, 2018ko ekainaren 29ko akziodunen batzar orokorrean sozietatearen likidazioa onartu baitzen. Ondorioz, 2018ko ekitaldiko urteko kontuak aurkeztean, ICACen 2013ko urriaren 18ko Ebazpena

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZINETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

funtzionatzen ari den enpresaren printzipioa aplikagarria ez deneko finantza informazioaren esparruari buruzkoa, aplikatu da.

Irizpide horien aplikazioak, ordea, ez dakar aldaketa esanguratsurik finantza egoerak funtzionatzen ari den enpresaren printzipioaren pean egiteari dagokionez.

Erantsitako urteko kontuetan, batzuetan, sozietatearen zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili izan dira, bertan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko.

Zenbatespen horiek taxutzeko, aztertutako gertakariei buruz urteko kontuak egiterakoan zegoen informaziorik onena erabili zen. Hala ere, baliteke, etorkizunean, hurrengo ekitaldi batzuetan zenbatespenok aldatzera behartzen duten (gorantz edo beherantz) gertakariak egotea, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, aldaketaren ondorioak aitortuz etorkizuneko galera-irabazien kontuetan.

2.4. Informazioaren alderaketa:

Merkataritzako legeriarekin bat etorritz, likidatzaileek 2018ko ekitaldiko kopuruez gainera, 2017koak ere aurkezten dituzte, balantzearen partida bakoitzarekin, galera-irabazien kontuarekin, ondare garbian izan diren aldaketen egoerarekin, eskudiru fluxuen egoerarekin eta memoriarekin erkatu ahal izateko.

Urteko kontuak 53/2013 eta 8/2014 foru dekretuen bidez onartutako ereduaren arabera aurkeztu dira.

2.5. Partida batean baino gehiagoan jasotako elementuak:

Balantzearen, galera-irabazien kontuaren eta ondare garbian izandako aldaketen egoeraren zenbait partida taldeka aurkezten dira, errazago uler daitezen; hala ere, garrantzitsua izan denean, erantsitako memoriaren oharretan informazioa bereizita gehitu da.

Ez dira aurkezten balantzeko partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare elementuak.

2.6. Hutsen zuzenketa:

Urteko kontuak, honekin batera doazenak, egitean, ez da antzeman huts nabarmenik, 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako zenbatekoen berradierazpenik ekarri duenik.

3. OHARRA. EMAITZEN BANAKETA

Likidatzaileek 2018ko ekitaldiko mozkin banaketa honen arabera aplikatzea proposatzen diote Batzar Orokorrari:

Galera-irabazien kontuko saldoa	343.696,98	13.529,55
Banaketa-orria guztira	343.696,98	13.529,55
Banaketa proposamena	2018	2017
Legezko erreserbara	6.925,32	0,00
Borondatezko erreserbetara	90.018,00	0,00
Aureko ekitaldietako emiaitza negatiboetara	246.753,66	13.529,55
Guztira	343.696,98	13.529,55

2018ko ekitaldian ez da banatu konturako dibidendurik.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

4. OHARRA ERREGISTRORAKO ETA BALORAZIORAKO ARAUAK

Sozietateak urteko kontuak egiterakoan balioespen arau jakin batzuk erabili ditu, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoekin bat etorritz. Hona hemen erabilitako arau nagusiak:

4.1. Ibilgetu ukiezina:

Ibilgetu ukiezina, hasieran, kostuaren arabera baloratzen da; hau da, eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera.

Hasierako azterketaren ostean, ibilgetu ukiezina baloratzean kostua ken haren amortizazio metatua hartzen dira kontuan; baita, hala badagokio, erregistratu diren narriatzearen ziozko zuzenketen zenbateko metatua ere.

Ibilgetu ukiezinak bizitza baliagarri zehatzeko aktiboak dira eta, beraz, haien amortizazio sistematikoa egiten da, arrazoizko moduan, aktiboari datzekion etekin ekonomikoek enpresarentzat errendimenduak sortuko dituztela aurreikusten den epean.

Aktibo horien bizitza baliagarria era fidagarrian zenbaterik ez dagoenean hamar urteko epean amortizatuko dira, ibilgetu ukiezinari buruzko arau berezietan ezarritako epeak ere kontuan hartuz.

Urtero balioa narriatzearen zantzurik dagoen aztertzen da, hala bada, balizko narriadura egiaztatzeko.

Ekitaldia ixtean behintzat, narriatze aztarnarik dagoen aztertzen da; eta horrela izanez gero, berriro eskuratu daitezkeen zenbatekoak zenbatu eta egin beharreko balio zuzenketak egiten dira.

Sozietateak kontabilitatean jasotzen ditu aktibo horietan erregistratu diren galerak (halakorik egon bada), narriatzearen ondorioz gertatu direnak; horretarako, galera-irabazien kontuko "Narriatzearen ziozko galera garbiak" epigrafea erabiltzen da kontrapartida moduan. Narriatzearen ziozko galerak aitortzeko irizpideak eta aurreko ekitaldietan erregistratu diren narriatzearen ziozko galeren ondorioak (egon direnean), aktibo materialetan aplikatutako antzekoak dira. Beherago azaltzen dira.

4.2. Ibilgetu materiala:

Ibilgetu materiala eskuratze kostuaren, hau da, amortizazio metatuaren kostu garbiaren, arabera baloratu da, izan diren narriatzearen ziozko galerak aintzat hartuta. Elementu bakoitza eskuratzeko ordaindu den prezioaz gainera, eraikitze aldian zehar sortu diren finantza gastuak ere sartzen dira kostuan, baldin eta horiek aktiboa eskuratzeari edo fabrikatzeari zuzenean egotzi ahal bazaizkio eta erabiltzeko moduan egoteko urtebete baino denbora luzeagoa behar badute. Ekitaldian ez da kontzeptu horren zenbatekorik aktibatatu.

Elementu osoen ordezkapenak edo berrikuntzak, xede den ondasunaren bizitza baliagarria areagotzen duten zabalkuntza, modernizazio edo hobekuntza kostuak, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa, horiek guztiak ibilgetu materialaren zenbateko handiago gisa zenbatzen dira eta, ondorioz, ordezkatu edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Sortzapen printzipioa betez, mantentzeko, artatzeko eta konpontzeko aldian behingo gastuak, egiten diren ekitaldiko kostu moduan egotzen zaizkie emaitzei.

Amortizazioa kalkulatzeko metodo lineala aplikatuz aktiboak eskuratzeko kostuaren gainean eta gero hondar balioa kenduz; izan ere, kontuan hartu behar da eraikinen eta bestelako eraikuntzen lurrek bizitza baliagarri mugagabea dutela eta, beraz, ezin direla amortizatu.

Aktibo materialak amortizatzekeko urteko zuzkidurak kontrapartidarekin egiten dira galera-irabazien kontuan; funtsean, elementuei batez beste zenbatetsitako bizitza baliagarriaren urte kopuruaren arabera zehaztu diren amortizazio ehunekoak dira:

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

<u>Kontzeptua</u>	<u>Urteak</u>
Instalazio teknikoak eta makineria	6-10
Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	6-10
Informazio prozesuetako ekipoak	4-6
Bestelako ibilgetua	10-15

Sozietatearen likidatzaileek uste dute aktiboen kontabilitate balioak ez duela gainditzen horien balio berreskuragarria.

Aktibo bat besterendu edo balioagabetzean lortzen den mozkina edo galera kalkulatzeko, aktiboaren salmentaren mozkinaren eta liburutuan duen zenbatekoaren arteko aldea atera behar da; emaitzen kontuan jasotzen da.

Finantza errentamendu moduan eskuratutako aktibo materialak errentatutako ondasunei dagokien aktiboaren kategorian erregistratzen dira, eta aurreikusitako bizitza baliagarrian zehar amortizatzen dira jabetzan dauden aktiboentzako metodo bera erabiliz.

2017ko ekitaldian bajan eman ziren partida honetako elementu guztiak.

4.3. Finantza-aktiboak eta -pasiboak:

Sozietateak dituen finantza-aktiboak honela sailkatzen dira:

-Kostua amortizatutako finantza aktiboak: Kategoria honetan sartzen dira merkataritza eragiketen ziozko kredituak (trafiko eragiketen ondoriozko ondasunen eta zerbitzugintzaren salmentak dakartzan finantza aktiboak) eta kostua amortizatutako beste finantza aktibo batzuk (ez dira ondare tresnak edo horien deribatua, ez dira merkataritzakoak eta horien kobrantzek zenbateko mugatua edo muga daitezkeen zenbatekoa dute). Edo, beste modu batera esanda, hauek hartzen ditu: merkataritza trafikokoak ez diren kredituak, eskuratu diren zorraren balio adierazgarriak, kreditu erakundeetako gordailuak, langileentzako aurrerakin eta kredituak, eraturako fidantza eta gordailuak, kobratzeko dibidenduak eta ondare tresnen gainean eskatutako ordainketak. Kostua amortizatuta baloratzen dira.

-Negoziatzeko mantendutako finantza aktiboak: Finantza aktibo bat negoziatzeko mantentzen dela pentsatzen da epe laburrean saltzeko asmoarekin sortu edo eskuratu gero edo finantza tresna deribatua izanez gero. Euren arrazoizko balioagatik baloratzen dira, besterentzean sor daitezkeen eskualdaketa kostuak kendu gabe. Ekitaldiko galera-irabazien kontuari egotziko zaizkio arrazoizko balioan egiten diren aldaketak.

-Finantza aktiboak kostuan: Kategoria honetan sartzen dira taldeko enpresetan, talde anitzeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak eta gainerako ondare tresnak. Kostuan baloratzen dira (emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean aplikagarri zaizkien transakzio kostuak) ken, hala behar izanez gero, narriatzearen ondoriozko balio zuzenketen zenbateko metatua. Zuzenketa horiek kalkulatzeko, kontabilitate balioari zenbateko berreskuragarria kentzen zaio. Ebidentzia hoberik izan ezean, zenbateko berreskuragarritzat jotzen da partaidetzako erakundearen ondare garbia, balorazio egunean dauden gainbalio tazituen zenbatekoaz zuzenduta.

Talde bereko enpresen arteko eragiketarako arau orokorren arabera kontabilizatzen dira, 21. balorazio arauan xedatutakoa betez. Ondorioz, hasieran arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira eta gero, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.

-Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak: Erantsitako egoera balantzeko epigrafe honen barruan erregistratzen dira kutxa eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk. Azken hauek, hain zuzen, kutxan arin egin daitezke eta ez dute balioak aldatzeko arriskurik.

Enpresak finantza-aktibo bat balioagabetuko du horren ondoriozko eskubideak iraungitzen direnean edo horren titulartasuna lagatzen denean, jabetzari lotutako arrisku eta mozkin adierazgarriei uko egin ostean.

Ekitaldia ixtean behintzat, narriatzearen ondorioz egin beharreko balio zuzenketak egiten dira, baldin eta zorretan dauden zenbateko guztiak kobratuko ez diren ebidentzia objektiboa badago.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

Balioaren narriatze galeraren zenbatekoa honako hau da: aktiboaren kontabilitate balioaren eta balioetsitako etorkizuneko eskudiru fluxuen egungo balioaren arteko aldea, hasierako onarpenean kalkulaturako interes tasa efektiboaren arabera deskontaturako direla fluxuak. Balio zuzenketak eta, hala behar izanez gero, haren lehengoratzek galera-irabazien kontuan jasotzen dira.

Enpresak finantza-pasibo bat onartuko du, kontratuan edo negozio juridikoan nahitaez jasotako alderdia bihurtzen denean. Finantza-pasiboak honela sailkatzen dira:

-Kostua amortizatutako finantza pasiboak: Kategoria honetan sartzen dira merkataritza eragiketen ondoriozko zordunketak (hornitzaileak eta hartzekodunak) eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko zordunketak. Kategoria honetan sartzen diren pasiboak kostua amortizatuta baloratzen dira. Partaidetzako kontuen kontratuak baloratzen dira kudeatzaile ez diren partaideei egotzi behar zaien onura edo galerak gehitutako edo gutxitutako kostuan.

Aurrekoa gorabehera, gehienez ere urtebeteko mugaeguna duten eta hasieran balio nominalaren arabera baloratzen diren zordunketek zenbateko horren arabera baloratuta jarraituko dute.

-Negoziatzeko mantendutako finantza pasiboak: Finantza pasibo bat finantza tresna deribatua izanez gero, negoziatzeko dela pentsatuko da. Negoziatzeko mantentzen diren finantza-aktiboetarako finkatutako irizpideen arabera baloratzen dira.

Enpresak finantza-pasibo bat baliogabetu egingo du obligazioa iraungi denean.

4.4. Izakinak:

Abian dauden sustapenak edo birgaitzeko obrak beren ekoizpen kostuaren arabera balioesten dira. Izakinen balio garbi bihurgarria ekoizpenaren kostua baino txikiagoa denean, beharrezkoak diren balio zuzenketak egiten dira, beren gauzatze mailaren arabera.

Betiere, gauzatze balioa ekoizpen kostua baino txikiagoa da. Hortaz, kontabilitate balio garbia bat dator gauzatze balioarekin.

4.5. Mozkinen gaineko zerga:

Zuhurtasun irizpideari jarraikiz, sozietateak ez du erregistratzen zerga oinarri negatiboen ondoriozko zerga kreditua, eta gastu txikitat jotzen du sozietateen gaineko zerga aplikatzen diren ektialdian.

4.6. Diru sarrerak eta gastuak:

Diru sarrerak eta gastuak sortzapean irizpidearen arabera egozten dira.

Diru sarrerak kalkulatu dira kobratuta edo kobratzeko dagoen kontraprestazioaren arrazoizko balioa kontuan hartuta, eta emandako ondasunengatik eta jardueraren ohiko esparruan emandako zerbitzuengatik kobratu beharreko zenbatekoak dira, deskontuak, BEZa eta salmentei lotutako beste zerga batzuk kenduta.

Ondasunen salmentak onartzen dira ondasunen jabetzari berezkoak zaizkion arrisku eta mozkin adierazgarri guztiak erosleari eskualdatu zaizkionean.

Halaber, zerbitzugintzari lotutako diru sarrera arruntak onartzeko, balantzea egin den egunean zerbitzua zein mailatan eman den hartzen da kontuan, baina betiere eragiketaren emaitza fidagarritasunez zenbatetsi badaiteke.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

Interesen ziozko diru sarrerak aldi baterako finantza irizpidea betez sortzen dira, kobratu gabeko printzipala eta aplikatu beharreko interes tasa kontuan hartuta, tasa horrek berdinduko baititu finantza-aktiboari aurreikusitako bizitzan zehar zenbatetsitako eskudirutako ordainagiriak aktibo horren kontabilitate zenbateko garbiarekin.

4.7. Hornidurak eta kontingentziak:

Egoeraren balantzea egiten den egunean dauden obligazioek (aurreko inguruabarren ondorioz sortu direnak), sozietateari ondarean kalteak ekarriko badizkiote eta zenbatekoa eta kitatzeko unea mugagabeak badira, hornidura moduan erregistratzen dira egoera balantzean, zenbatespenen arabera sozietateak obligazioa kitatzeko ordaindu beharko duen zenbatekoaren egungo balioarekin.

Horiek eragin dituen inguruabarraren ondorioei buruz dagoen informazioa kontuan hartuta zenbatuko dira, eta kontabilitatea ixten den bakoitzean berriz zenbatetsiko dira hasieran aitortzeko xede ziren obligazio bereziei aurre egiteko erabiltzen dira, eta obligaziorik ez dagoenean edo obligazioa murrizten denean itzultzen dira (osorik edo horien zati bat).

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

4.8. Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzuli ezin diren kapitaleko dirulaguntzetan, emandako zenbatekoa baloratzen da. Hasieran zuzenean ondare garbiari egotzitako diru sarrera moduan aitortzen dira eta emaitzei egotzen zaizkie dirulaguntzen bidez finantzatutako aktiboek aldi horretan izan duten balio galeraren arabera. Besterentzen direnean edo inbentariotik kentzen direnean, hori egin den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Itzultzeko diren dirulaguntzen izaera duten bitartean, pasibo moduan kontabilizatzen dira.

Dirulaguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen badira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko diru sarrera moduan egotzen dira.

Izakinei lotutako dirulaguntzen kasuan, ekitaldiko diru sarreretara egotziko dira besterentzen direnean, narriatzearen ziozko balio zuzenketa egiten zaienean edo balantzean baja ematen zaienean.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

5. OHARRA IBILGETU UKIEZINA

5.1. Ibilgetu ukiezinaren mugimenduak.

	Erabiltzeko erabileraren lagapena: Ruiz de Vergara Jauregia
A) Hasierako saldo gordina 2017an	1.598.208,38
(+) Sarrerak	60.396,26
(-) Irteerak	0,00
B)Bukaerako saldo gordina 2017an	1.658.604,64
C) Amortiz met. Hasierako Saldoa 2017an	30.333,33
(+) Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	2.333,33
(+) Eskuraketen edo intsuldaketen gehikuntzak	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketa	0,00
D) Amortiz met. Bukerako Saldoa 2017an	32.666,66
E)Narraiatazaren balio zuzenketa. Hasierako saldoa 2017an	0,00
(+) Ekitaldian onartutako narraiatazaren balio zuzenketa	0,00
(-) Narraiatazaren balio zuzenketa lehengoratzea	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketa	0,00
F) Narraiatazaren balio zuzenketa. Bukaerako Saldoa 2017an	0,00
G) Hasierako saldo gordina 2018an	1.658.604,64
(+) Sarrerak	0,00
(-) Irteerak	0,00
H) Bukaerako saldo gordina 2018an	1.658.604,64
I) Amortiz met. Hasierako Saldoa 2018an	32.666,66
(+) Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	1.750,00
(+) Eskuraketen edo intsuldaketen gehikuntzak	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketa	0,00
J) Amortiz met Bukaerako Saldoa 2018an	34.416,66
K) Narraiatazaren balio zuzenketa. Hasierako Saldoa 2018an	0,00
(+) Ekitaldian onartutako narraiatazaren balio zuzenketa	0,00
(-) Narraiatazaren balio zuzenketa lehengoratzea	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketa	1.624.187,98
L) Narraiatazaren balio zuzenketa. Bukaerako saldoa 2018an	1.624.187,98
Bukerako saldo garbia 2017an	1.625.937,98
Bukaerako saldo garbia 2018an	0,00

Barnean daude Ruiz de Vergara jauregia erabiltzeko eskubideen kostuak (14.1 oharra). Hona hemen haien xehetasunak:

- Erabilera lagatzeagatik Gasteizko Udalari ordaindutako diru kopurua: 210.000,00 euro
- Birgaitzearen zenbatekoa: 1.448.604,64 euro

GUZTIRA: 1.658.604,64 euro

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

2108ko urriaren 22an, entitateko bazkideen batzar orokorrak baimena eman zuen Ruiz de Vergara jauregiaren erabilerarako akordioa hutsaltzeko hitzarmena izenpetzeko. Abenduaren 12an izenpetu zen hitzarmen hori Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteiz Udal Hirigintza Elkarte ENSANCHE 21 ZABALGUNEA SAREkin. Haren bidez, suntsiarazi egiten da lagapen akordioa, eta higiezinak birgaitzeko eginbeharretik eta edozein diru kopuru ordaintzetik libre geratzen da Arabarri. Hitzarmen hori publiko bihurtu zen 2019ko urtarrilaren 22an Luis Pérez de Lazarraga Villanueva notarioaren aurrean 94 protokolo zenbakiaz egiletsitako eskrituraren bidez. Horren ondorioz, 2018ko ekitaldian sozietatearen aktibo ukiezinaren nariadura egin da.

6. OHARRA IBILGETU MATERIALA

6.1. Ibilgetu materialaren mugimenduak.

	Altzariak	Ekipo informatikoak	Garraio- elementuak	GUZTIRA
A) Hasierako saldo gordina 2017an	18.464,41	10.678,71	0,00	29.143,12
(+) Sarrerak	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak	-18.464,41	-10.678,71	0,00	-29.143,12
B) Bukaerako saldo gordina 2017an	0,00	0,00	0,00	0,00
C) Amortiz. met. Hasierako saldoa 2017an	18.464,41	10.678,71	0,00	29.143,12
(+) Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) Eskuraketen edo intsuldaketen gehikuntzak	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	-18.464,41	-10.678,71	0,00	-29.143,12
D) Amortiz. met. Bukaerako saldoa 2017an	0,00	0,00	0,00	0,00
E) Narraiatzaren balio zuzenketa. Hasierako saldoa 2017an	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) Ekitaldian onartutako narraiatzaren balio zuzenketa	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Narraiatzaren balio zuzenketaren lehengoratzia	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	0,00	0,00	0,00	0,00
F) Narraiatzaren balio zuzenketa. Bukaerako saldoa 2017an	0,00	0,00	0,00	0,00
H) Hasierako saldo gordina 2018an	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) Sarrerak	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak/Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00
H) Bukaerako saldo gordina 2018an	0,00	0,00	0,00	0,00
I) Amortiz met Hasierako Saldoa 2018an	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) Eskuraketen edo intsuldaketen gehikuntzak	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	0,00	0,00	0,00	0,00
J) Amortiz met. Bukaerako saldoa 2018an	0,00	0,00	0,00	0,00
K) Narraiatzaren balio zuzenketa. Hasierako saldoa 2018an	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) Ekitaldian onartutako narraiatzaren balio zuzenketa	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Narraiatzaren balio zuzenketaren lehengoratzia	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	0,00	0,00	0,00	0,00
L) Narraiatzaren balio zuzenketa. Bukaerako saldoa 2018an	0,00	0,00	0,00	0,00
Bukaerako saldo garbia 2017an	0,00	0,00	0,00	0,00
Bukaerako saldo garbia 2018an	0,00	0,00	0,00	0,00

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

2017ko ekitaldian, bajaran eman zitzaizen kantabilitate balio garbia zero duen ibilgetu materialeko elementuak, sozietateak erabiltzen ez zituenak.

7. OHARRA IZAKINAK

Izakinen mugimenduak hauek izan dira:

	Izakinak	Narraiadura	Balorazioa
2016/12/31ko Saldoa	1.550.647,35	-899.147,35	651.500,00
2017ko Altak	14.950,25	-14.950,25	0,00
2017ko Bajak	-141.723,56	63.223,56	-78.500,00
2017/12/31ko Saldoa	1.423.874,04	-850.874,04	573.000,00
2018ko Altak	0,00	0,00	0,00
2018ko Bajak	0,00	0,00	0,00
2018/12/31ko Saldoa	1.423.874,04	-850.874,04	573.000,00

2017ko ekitaldian, izakinak aktibatu ziren mantentze, aseguru eta finantza gastuengatik, 14.950,25 euroko zenbatekoaz, eta narraiadura jasan zuten, iritziz ez zutela handitzen sustapenaren balioa. Gainera, saldu zen Santikurutze Kanpezuko etxebizitza, 78.500 eurotan balioetsita zegoena.

2018ko ekitaldian, ez da izan aldaketarik izakinetan.

2018ko balio zuzenketetan izan den aldakuntza ondoko hauei dagokie:

	17.12.31ko Saldoa	Narraidura	Bajak	18.12.31ko Saldoa
Kanpezu	26.606,69	--	--	26.606,69
Samaniego	449.565,64	--	--	449.565,64
Lapuebla	374.701,71	--	--	374.701,71
GUZTIRA	850.874,04	0,00	0,00	850.874,04

Hau da abian diren sustapenen xehapena:

	KOSTUA	BALIO ZUZENKETA	BALIO GARBIA
KANPEZU	45.206,69	-26.606,69	18.600,00
SAMANIEGO	1.003.965,64	-449.565,64	554.400,00
LAPUEBLA	374.701,71	-374.701,71	0,00
GUZTIRA	1.423.874,04	-850.874,04	573.000,00

Lapueblako sustapenean 6 etxebizitza eraikitze asmoa zegoen. Gaur egun obra geldituta dago eta ez dago inori adjudikatzeko usterik.

Samaniegoko sustapena (6 etxebizitza) amaituta dago, baina ez dago adjudikaziodunik.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

Santikurutz Kanpezuko 7 etxebizitzaren sutapena bukatuta dago 2018ko abenduaren 31n, 3 garaje geratzen direla saltzeko, 18.600,00 eurotan baloratuak (6.200,00 euro bakoitza), tasazioaren arabera.

Balio zuzenketak, tasazioak oinarritzat hartuta, merkatuko balioaren arabera eguneratuta daude.

8. OHARRA. FINANTZA PASIBOAK

8.1 Epe luzerako finantza-pasiboak

Hona sozietatearen balantzeko pasiboko epe luzerako finantza tresnen informazioa, kategorietan sailkatuta:

KATEGORIAK	SAILKAPENA	
	Eratorkiak eta bestelakoak	
	2018ko Ekitaldia	2017ko Ekitaldia
Zordunketak eta ordaintzeke dauden kontu-sailak	0,00	621.020,17
GUZTIRA	0,00	621.020,17

Agertzen den 2017ko saldoa ondoko partida hauei dagokie:

- Arabako Lanak SAUren partaidetza kreditua, 2016ko ekainaren 21ean emana. 2017/12/31n 437.551,52 euroko saldoa zuen, zeinetatik 2017an 50.000 euro amortizatu baitziren.
- AFA hartzekoduna itzuli beharreko dirulaguntzengatik, 183.468,65 euroko zenbatekoaz, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 2ko 323/2009 Erabakiaren bidez etxebizitzak sustatu eta kudeatzeko jardun programako galerak konpentsatzeko esleitutako 600.000 euroko partidaren gerakina.

2018ko ekitaldian, sozietateak amortizatu du Arabako Lanak SAU sozietatearekin izenpetutako partaidetza kreditua 50.000,00 eurotan; haren saldoa 2018ko abenduaren 31n 397.551,52 euro zen. Kreditu hori guztira bi urteko epeaz eman zen, 2018ko ekainaren 21era arte. Hortaz, gaur egun mugaegunera helduta dago. Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta egun bi sozietateak likidazio egoeran daudela, bi entitateek adostu dute kontu korrontean geratzen den saldoa mantentzea eta berandutze interesik ez sortzea, likidazio eskriturak eman ahal izateko zain dauden bitartean.

Arabarrri likidazioan dagoenez, eta Arabako Foru Aldundiak, zuzenean edo zeharka, sozietatearen akzio guztiak dituenez gero, azaroaren 19an Foru Gobernu Kontseiluak 625/2018 Erabakia hartu zuen, zeinaren bidez artxibatu baitzen 323/2009 Erabakiaren bidez onartutako finantzamenduari buruzko espedientea. Halaber, erabaki da zirkunstantzia hori kontuan har dadila Arabarrri sozietatearen likidazioa formulatzen den garaian, orduan Arabako Foru Aldundiak eman den dirulaguntzaren xede diren etxebizitzak edo horiek besterentzearen emaitza jasoko baititu sozietate likidazioko kuota bezala. Horren ondorioz, ezeztatu egin da kontzeptu horren saldoa.

8.2 Epe laburrerako finantza-pasiboak

Hona sozietatearen balantzeko pasiboko epe laburrerako finantza tresnen informazioa, motetan eta kategorietan sailkatuta:

KATEGORIAK	SAILKAPENA	
	Eratorkiak eta bestelakoak	
	2018ko Ekitaldia	2017ko Ekitaldia
Zordunketak eta ordaintzeke	397.551,52	229.143,55
GUZTIRA	397.551,52	229.143,55

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

Ordaindu beharreko zorren eta partiden kontua honela xehakatu da:

KONTZEPTUA	2018	2017
Hartzekodunak partikular eta erakundeentzako laguntzagatik (11.6 Oharra)	0,00	2.743,14
Zerbitzuak emateagatik hornitzaileak	0,00	55.991,63
Dirulaguntza bihur daitezkeen epe laburrerako zorrak (11.6 Oharra)	0,00	170.408,78
Hartzekodun Komertzialak eta ordaintzeke dauden bestelako kontuak Guztira	0,00	229.143,55
Epe laburrerako zorrak taldeko enpresekin (8.1 Oharra)	397.551,52	0,00
Pasibo Korrontea Guztira	397.551,52	229.143,55

9. OHARRA FUNTS PROPIOAK

9.1. Harpidetutako kapitala:

Sozietatearen kapitala 76.000 eurokoa da, eta 2.000 akzio izendunetan dago banatuta, bakoitza 38 euroko balio nominalakoa, serie bakarrean eta 1etik 2.000ra (biak barne) hurrenez hurren zenbakiturik. Kapitala erabat harpideturik eta diru guztia jarririk dago urteko kontu hauek formulatu diren egunean.

2018ko apirilaren 24an, Foru Gobernu Kontseiluak 215/2018 Erabakia hartu zuen, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiak Arabarriren akzio guztiak erosi baitzizkien Arabako Lurralde Historikoko udalei. Salerosketa hori jasota dago 2018ko ekainaren 29an Luis Pérez de Lazarraga notarioaren aurrean 946 protokolo zenbakiaz egiletsitako eskrituran.

Horren ondorioz, sozietateko akzioduneria gaur egun honela osaturik dago:

.....	<u>ZENBATEKOA</u>	<u>AKZIO KOP.</u>	<u>PARTAIK. %</u>
Arabako Lanak S.A.	42.484	1.118	55,90%
Arabako Foru Aldundia	33.516	882	44,10%
<u>GUZTIRA</u>	<u>76.000</u>	<u>2.000</u>	<u>100,00%</u>

9.2. Legezko erreserba

Legezko erreserba uztailaren 2ko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 274. artikulua arabera zuzkitu da. Dekretu horren bidez, Kapital sozietatei buruzko Legearen testu bateratua onartu zen, zeinetan ezartzen baita ekitaldiko mozkinen ehuneko 10en pareko kopurua hartara bideratuko dela, legezko erreserba hori gutxienez sozietatearen kapitalaren ehuneko 20ra iritsi arte.

Ezin da banatu, eta galerak konpentsatzeko erabiltzen bada, birjarri egin behar da etorkizuneko mozkinekin, helburu horretarako beste erreserbarik eskura ez dagoen kasuetan.

10. OHARRA ZERGA EGOERA

2018ko ekitaldian ez da gasturik sortu etekinen gaineko zergarengatik.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

2017ko eta 2018ko ekitaldiak ixtean, ondoko hauek ziren sozietateak erakunde publikoekin zituen saldoak:

	2018ko EKITALDIA		2017ko EKITALDIA	
	Zorduna	Hartzekoduna	Zorduna	Hartzekoduna
Ogasun publikoa BEZagatik zorduna	2.192,50	0,00	2.176,93	0,00
Ogasun publikoa zorduna dirulaguntzengatik (8.2 Oharra)	0,00	0,00	0,00	103,73
Ogasun publikoa zorduna egindako atxikipenengatik	0,00	86,40	0,00	10,35
GUZTIRA	2.192,50	86,40	2.176,93	114,08

Sozietateak ez ditu erregistratu erantsitako balantzean denbora diferentzia kengarrien zerga geroratuaren aktiboa, zerga oinarri negatiboak edo bestelako zerga kredituak, zuhurtzia printzipioari jarraituta; seguruena etorkizunean ez baitira lortuko zerga etekinak, aktibo horiek aplikatzeko aukera emango dutenak.

Sozietateak, 2018ko ekitaldian zerga oinarri positiboa eduki arren, ez du gasturik izan sozietateen gaineko zergarengatik; izan ere, aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboekin konpentsatu da hura.

Hona hemen konpentsatzeke dauden zerga oinarri negatiboen xehetasunak eta ekitaldian izan duten eboluzioa:

Zerga-Oinarri Negatiboa sorzen ekitaldia	2017.12.31n konpentsatzeke daudenak	2018an sortutako Zerga-Oinarri Negatibo	2018ko Sozietate-Zergan konpentsatutakoak	2018.12.31n konpentsatzeke daudenak
2004	335.934,01	--	335.934,01	0,00
2005	390.772,82	--	7.762,97	383.009,85
2006	441.856,63	--	--	441.856,63
2007	434.685,35	--	--	434.685,35
2008	606.541,67	--	--	606.541,67
2009	1.211.880,32	--	--	1.211.880,32
2010	525.706,66	--	--	525.706,66
2011	462.690,52	--	--	462.690,52
2012	320.789,11	--	--	320.789,11
2013	48.017,50	--	--	48.017,50
2014	70.502,00	--	--	70.502,00
2015	22.532,45	--	--	22.532,45
Total	4.871.909,04	--	343.696,98	4.528.212,06

Aplikatzekoak zaizkion zerga kontzeptu guztiak ikuska daitezke, legezko preskripzio epean.

11. OHARRA. DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

11.1 Diru sarrerak

2018ko ekitaldian, sozietateak diru sarrerak izan ditu. 2017ko ekitaldian izandako diru sarrerak, Santikurutze Kanpezun kokatutako sustapeneko etxebizitza 78.500 eurotan saltzetik lortu dira.

11.2 Etxebizitzak sustatu eta kudeatzeko programako hornidurak:

Partida honela xehatzen da:

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

	2018ko EKITALDI	2017ko EKITALDI
Etxebizitzen Sustapenerako eta Kudeaketarako programaren zuzkidura	207,29	1.154,92
Zuzkiduren saldo garbia	207,29	1.154,92

Etxebizitzak sustatu eta kudeatzeko programan, herrigune historikoetako lurzoru eraikigarria edo herrigunetik kanpoan katalogatuta zeuden eraikinak erosten ziren, horiek zaharberitu eta etxebizitzak eraikitzeko. Beraz, Arabako ondare eraikia onik zaintzen eta birgaitzen laguntzeaz gainera, programa haren bidez partez asetzen zen ekimen pribatuaren aldetik eskaintzarik ez zuen etxebizitza eskaria.

2017ko ekitaldian, egindako zenbait jardunek, 14.950,25 euroko zenbatekoaz, narriadura jasan zuten zenbateko berean, iritziz ez dutela handitzen sustapenaren balioa.

Gainera, 2017ko ekitaldian Santikurutze Kanpezuko sustapeneko etxebizitza baten salmenta egin zen, 78.500 eurotan.

2018ko ekitalian ez da egin salmentarik.

11.3. Bestelako ustiapen gastuak:

Epigrafe honen barruan, sozietatearen kanpoko zerbitzuez gainera, konpainiak onartu dituen laguntzak ere sartu dira.

KONTZEPTUA	2018ko EKITALDIA	2017ko EKITALDIA
Kanpoko Zerbitzuak	12.035,36	15.422,86
Zergak	740,93	-360,00
Horniduran aldaketa	0,00	0,00
Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzak		-80.000,00
- Toki erakunde laguntzailei murrizketak		-80.000,00
Beste ustiapen-gastuak guztira	12.776,29	-64.937,14

Kanpoko zerbitzuen partida honako gastu hauek osatzen dute:

	2018ko Ekitaldia	2017ko Ekitaldia
KANPO ZERBITZUAK		
Konponketak eta Mantentze-lanak	-350,41	11.355,16
Profesional independenteen zerbitzuak	10.341,99	801,70
Aseguru-Primak	1.899,78	2.306,45
Zerbitzu bankarioak eta antzekoak	144,00	114,00
Bestelako Zerbitzuak	0,00	845,55
Guztira	12.035,36	15.422,86

11.4. Langile gastuak:

Sozietateak ez zeukan langilerik 2018ko abenduaren 31n, ez eta 2017ko abenduaren 31n ere.

11.5. Amortizazioaren zuzkidura:

Elementu amortizagarriaren bizitza baliagarriari dagokion urteko kuota biltzen du (ikus 5,1 eta 6,1 OHARRAK).

11.6. Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk:

Epigrafe honen barruan euroko zenbatekoa honela dago osatuta:

- Salbuespeneko diru sarrerak: 356.680,57 euro, honela xehatuta:

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

- a) 2017ko abenduaren 31n balantzearen epe luzerako finantza-pasiboan jasotako 183.468,65 euro, sozietateak egindako etxebizitza sustapen eta kudeaketa jardueraren ekintza programarako Arabako Foru Aldundiak emandako finantzamenduarenak. Sozietatea likidazioan dagoenez gero, 2018ko azaroaren 19an Foru Gobernu Kontseiluak 625/2018 Erabakia hartu zuen, zeinaren bidez artxibatu baitzen finantzamenduari buruzko espedienteak. Hortaz, 2018ko ekitaldian sozietateak emaitzetara aldatu du zenbateko hori.
- b) 170.408,78 euro, “Dirulaguntza bihur daitezkeen epe laburrerako zorrak” partidaren finantza pasibo gisa kontabilizatutako dirulaguntzenak, eta sozietateak emaitzetara aldatu dituenak, dirulaguntzak itzuliko ez direla irizita.
- c) 2.743,14 euroko zenbatekoa, 2017ko abenduaren 31n “Hartzekodunak partikular eta erakundeentzako laguntzengatik” partidaren jasotako saldoarena, zeina erregularizatu baita 2018ko ekitaldian.
- d) 60,00 euro, Kanpezuko Jabeen Erkidegoaren kontu erregularizazioarenak.

- Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzak: 0 euro (50.222,67 euro 2017an)

2017ko ekitaldian, Arabarri SA batik bat aritu da beste ekitaldi batzuetako dirulaguntzen espedienteak ixten. 2017ko ekitaldian, 50.222,67 euro kendu dira hainbat espedientetan (toki erakundeak eta katalogatutako eraikinak). 80.000 euroko zenbatekoa 2011n emandako dirulaguntza atzera botatzearena da. 2018ko ekitaldian, ez da eman dirulaguntzarik, ez eta murriztu ere.

KONTZEPTUA	2018ko EKITALDIA	2017ko EKITALDIA
Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzak	0,00	-80.000,00
- Toki erakunde laguntzaileei murrizketak	0,00	-80.000,00
Etxebizitzaren programarako dirulaguntzak (9.1 Ohar	0,00	29.777,33
Bestelako diru-sarrerak	0,00	-50.222,67

12. OHARRA. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Hau da partidaren osaera zehatza:

	2016-12-31ko Saldoa	Gehikuntza	Emaitzen intsuldaketak	2017.12.31ko Saldoa	Emaitzen intsuldaketak	2018.12.31ko Saldoa
Indarrean ibilgetuaren ersoketarako AFaren dirulaguntza (Vergara Jauregia)	1.567.875,04	60.396,27	-2.333,33	1.625.937,98	-1.625.937,98	0,00
Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak guztira	1.567.875,04	60.396,27	-2.333,33	1.625.937,98	-1.625.937,98	0,00

5.1 oharrean azaltzen denaren arabera, 2018ko ekitaldian hutsaldu egin da Jauregia erabiltzeko eskubidea. Hortaz, 2018ko ekitaldian emaitzetara aldatu da aldatu gabe zegoen dirulaguntza osoa, eta narriatu egin da ibilgetu immaterialean jasotako erabilera eskubidea.

13. OHARRA. LOTURIKO ALDERDIEKIKO ERAGIKETAK

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZINETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

Aurreko 10. oharrean adierazi den moduan, Arabarrin partaidetza dauka Arabako Lanak SAUk.

2016ko ekitaldian, Arabarri SA sozietateak 487.551,52 euroko partaidetza kreditu bat jaso zuen Arabako Lanak SAU bere bazkidetik, kreditu erakundeekiko zorrak kitatzeko helburuaz.

2018ko ekitaldian, 40.000 euro amortizatu dira Arabako Lanak SAUk aurreko ekitaldian eman zuen partaidetza maileguan. 2017ko ekitaldian, berriz, 50.000 euro amortizatu ziren partaidetza mailegu horretan.

Esandako mailegua mugaegunera helduta dago 2018ko abenduaren 31n.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

13.1 Administrazio organoko kideen eta goi zuzendaritzako kideen ordainsariak:

2018ko ekitaldian eta 2017ko ekitaldian, Administrazio Kontseiluko kideei ez zitzairen ordainsaririk ordaindu beren kargua dela eta, eta ez dute sozietatearekin kobratu edo ordaindu gabeko saldorik mantendu.

Halaber, 2018ko ekitaldian, likidatzaileei ez zaie lansaririk ordaindu beren kargua dela eta, eta ez dute saldorik kobratzeke edo ordaintzeke eduki.

Goi zuzendaritzako kideei eta administrazio organoko kideei ez zaie aurrerakinik eta krediturik eman.

Arabako Foru Aldundiak erantzukizun zibileko aseguru poliza kontratatu du, sozietateko likidatzaileek paira ditzaketen arriskuak estaltzeko.

13.2 Interes-gatazkaren egoera (KSLren 229.3 art.)

Arabarriren likidatzaileek ez dute jakinarazi sozietatearekin zuzeneko edo zeharkako gatazka egoerarik dutenik, Kapitaleko Sozietateen Legearen 229.3 artikuluan ezarrita dagoen moduan.

14. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA

14.1 Ruiz de Vergara jauregia

2003ko maiatzaren 15ean, Gasteizko Udalak Ruiz de Vergara jauregia erabiltzeko eskubidea laga zion sozietateari 90 urterako. Sozietateak jauregian birgaitzeko konpromisoa onartu zuen. Lagapenaren xedea foru sozietate batzuen bulegoak jauregira eramatea zen, baina sozietatea beste xede batzuetarako ere erabil zezakeen, lagatzaileak berariaz eta idatziz baimena emanaz gero.

2010eko urtarrilaren 29ko bilkuran Administrazio Kontseiluak erabaki zuen uko egitea Etxebizitzarako eta Hiriberrikuntzarako Udal Eragintegia, SAk Ruiz de Vergara jauregia 90 urtean erabiltzeko lagatako eskubideari; horretarako bi baldintza zeuzkan: bata, erakunde horrek 6 hilabete pasatu baino lehen jauregi horren gaineko azalera, erabilera, gozamen edo antzeko eskubidea ematea Arabako Foru Aldundiari, laurogeita hamar urterako; ordura arte egindako zaharberritze obrak Arabako Foru Aldundiaren esku geratzea.

2010eko otsailaren 3an uko hori onartu zen eta 2011ko otsailaren 23an Arabako Foru Aldundiari jauregiaren lagatze eskaintza egin zitzaion.

Arabako Foru Aldundiak, ordea, ez zuen onartu lagatze eskaintza hori; beraz, 2017ko abenduaren 31n Arabarri SA sozietateak jarraitzen du izaten laurogeita hamar urterako lagatze horren onuraduna.

Hainbat arrazoi direla eta, bereoneratzea ez da amaitu. 2016ko abenduaren 29an, Arabako Foru Aldundiak sozietateari 60.500,00 euroko dirulaguntza eman zion, jarrai zezan Ruiz de Vergara jauregia bereoneratzen; 2017an burutu zen. 2018ko urriaren 22an, entitateko bazkideen batzar orokorrak baimena eman zuen Ruiz de Vergara jauregiaren erabilerarako akordioa hutsaltzeko hitzarmena izenpetzeko. Abenduaren 12an izenpetu da hitzarmen hori Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteiz Udal Hirigintza Elkarteak ENSANCHE 21 ZABALGUNEA SArekin. Horren bidez, suntsiarazten da lagapen akordioa, eta higiezinak birgaitzeko eginbeharretik eta edozein diru kopuru ordaintzetik libre geratzen da Arabarri. Hitzarmen hori publiko bihurtu zen 2019ko urtarrilaren 22an Luis Pérez de Lazarraga Villanueva notarioaren aurrean 94 zenbakiaz egiletsitako eskrituraren bidez.

14.2 Ekitaldia itxi osteko gertaerak

Ez da jazo geroko gertakizunik, erregistro eta balorazio araua aplikatzeagatik erantsitako urteko kontuen doikuntza dakarten inguruabarrak agerian jartzen dituenik; ez eta memoria honetan informazio gehigarria behar duenik ere.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIEATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

14.3 Ingurumena

Ingurumen esparruan ez da jarduketarik egin, sozietatearen ezaugarriak kontuan hartuz ez baita arrisku nabarmenik aurreikusi.

14.4 Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa

Sozietatearen jarduera akziodun nagusiak hartu du, hau da, Arabako Lanak SAK, eta horregatik ez du ezer ordaindu merkataritzako eragiketengatik.

14.5 Auditoretza zerbitzuen ordainsariak.

2018. urtean Arabarririk ez dio ordaindu lansaririk Bnfix KLZ Auditores SLP enpresari, Arabako Foru Aldundiak kontratatu baititu auditoretza zerbitzuak. 2018ko ekitaldian eta auditoretza zerbitzuak emateagatik 2.500,00 euroko zenbatekoa sortu dela kalkulatzen da, eta 2017ko ekitaldian, aldiz, 1.500,00 euro.

15. OHARRA. LIKIDAZIO ERAGIKETEN TXOSTEN XEHAKATUA

Indarreko Kapitaleko Sozietateen Legearen 388.2 artikuluan xedatutakoa betez, likidatzaileek izendatu zituztenetik 2018ko abenduaren 31 arte egindako likidazio eragiketen berri eman dute zehaztasunez.

a) Kobrantzak eta ordainketak: Epealdian, 2.203,52 euro egiten duten kobrantzak egin dira, honela xehatuta:

Dirulaguntzen kobrantza	0,00
Kudeketa korrontearen bestelako dirus:	26,61
KOBRANTZAK GUZTIRA	2.203,53

Halaber, epealdian 13.540,85 euro egiten duten ordainketak egin dira, honela xehatuta:

Kontzeptua	2018ko Ekitaldi:
Hartzekodunak eta hornitzaileak	12.592,63
Zergak	740,93
Lehengaien kontsumoa	207,29
ORDAINKETAK GUZTIRA	13.540,85

b) Diru sarrerak eta gastuak: Epealdiko diru sarreren zenbatekoa 1.982.618,55 izan da, honela xehatuta:

Kontzeptua	2018ko Ekitaldi:
Dirulaguntzen egozteka ekitaldiko emaitzari	1.625.937,98
Ustiapen bestelako dirusarrerak	356.680,57
DIRUSARRERAK GUZTIRA	1.982.618,55

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

Dirulaguntzak ekitaldiko emaitzari egozteko kontua ondoko kontzeptu hauetan xehatzen da:

- Ruiz de Vergara jauregia 2018an erabiltzeko lagatzea, 1.625.937,98 € (12. oharra)

Ekitaldiko aparteko diru sarreraren kontua ondoko kontzeptu hauetan xehatzen da, nagusiki:

- 323/2009 Erabakiaren espedientea artxibatzea (8.1 oharra), 183.468,65 €
- Dirulaguntzak ezeztatzea (8.2 oharra), 173.151,92 €

Epealdiko gastuen zenbatekoa 13.192,72 euro izan da, eta honela xehatzen dira:

Kontzeptua	2018ko Ekitaldi:
Lehengaien kontsumoa	207,29
Kanpoko zerbitzuak	10.494,50
Zergak	740,93
Ibilgetuaren amortizazioa	1.750,00
GASTUAK GUZTIRA	13.192,72

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZINETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

2018KO KUDEAKETAREN TXOSTENA

Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartu zuen 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuko 262. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, Arabarri, SAren likidatzaileek, Gasteizen bilduta 2019ko martxoaren 29an, 2018ko ekitaldiko kudeaketaren txostena egin zuten; likidatzaile guztiek sinatu zuten.

Batzar Orokorraren onarpenerako jarri diren balantzean eta irabazi-galeren kontuan argi ikusten den bezala, Arabarri SAK 2018ko ekitaldian egin duen lanaren xedea irekitako espedienteak ixtea izan da, gero sozietatea desegiteari ekin ahal izateko.

Hain zuzen ere, 2018. urtean ez da esleitu inolako diru kopururik Arabarri SArentzat hirigune historikoak zaharberitzeko laguntzetarako.

2018ko ekitaldian zehar, gure sozietateak ez du akziorik izan bere esku, eta ez du akziorik erosi edota saldu, kontabilitate erregistroetan ikus daitekeenez.

**SOCIEDAD ANÓNIMA DE GESTIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ÁLAVA -
ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA "ARABARRI",
LIKIDAZIOAN**

MEMORIA, 2018KO ABENDUAREN 31

URTEKO KONTUEN AURKEZPENA

Likidatzaileek urteko kontu hauek aurkezten dituzte, Gasteizen, 2019ko martxoaren 29an.

Urteko kontu hauek orriaren alde batetik bakarrik inprimatu dira, 1etik 26ra zenbatuta, eta sozietatearen likidatzaileak sinatu dituzte, ados daudela erakusteko.

LIKIDATZAILEAK:

Iñaki Aldeko garai Labaka

Iñaki Guillerna Sáenz